



Hernani Ongi etorri, txotx!

Sagardo garaia hasi zuten igandean Hernanin, aurrez Astigarragaok egin bezalaxe. Isaac Salaberria, Martin Berasategi eta Karlos Argiñano sukaldariak ireki zituzten upelak Txotx Egunean, eta udaletxeko plaza lepo egon zen. Gizarteko pertsona ezagunak gainera, urtero Gipuzkoako herriren bat omentzen dute, eta aurten ere bai: Beasain.

Txalaparta, bertsolariak... eta agurren eta omenaldien ostean, sagardoa edateko ordua!

Ilara luzeak egin ziren, ordurako denak egarrituta. Eskerrak edalontzia erostean txorizo pinxoak ematen zituzten, bestela... Hori bai, edalontzia nahi bestetan bete zitekeen. Upe-
lak ordu eta erdian egon ziren irekita, eta txar-
rangak girotu zuen jendearen joan-etorria. Aurpegi ezagunak ere hurbildu ziren festara: Aimar Olaizola pilotaria, Julen Madina sanfer-
minetako korrikalaria... Eta arratsaldean Ta-
piak eta Leturiak jo zuten Hernanin, dantzara-
ko gina piztu zitzaientzat.



Udaletxeko plaza bete egin zen. Denek nahi zuten sagardo berria probatu. Sukaldariak izan ziren txotx egiten lehenengoak. Jon Urbe / argaki press